

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarte

2025eko apirilak 4 · 1350 zenbakia

## GERTUKOENA ORAINDIK GERTUAGO




Progresiboen Hilabetea

**2 x 199€**

mó betaurreko progresiboak  
(batzuk eguzkitakoak izan daitezke)

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



**MULTIÓPTICAS**

943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





# osasun gida

## Dentistak

**Odontologia  
Biologikoa**

**Miren Albistegi Sojo**

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52  
malbistegi@gmail.com

arat.  
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL



**ZURE  
IRIBARRE  
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4  
20600 Eibar  
943 201 851  
www.aratclinika.com @arat\_klinika

**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLINICA DENTAL

**Maitane G. Iñiguez**  
Odontologian Lizentziatua  
RPS 75/8

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)  
943 537 076 - 688 884 808  
info@eibarclinicadental.com  
www.eibarclinicadental.com



**BISTA EDER**  
Hortz Klinika - Clínica Dental

30 urte irribarreak eraldatzen.  
Berretuak zu hobeto zaintzeko.

**INPLANTOLOGIA &  
ORTODONTZIA AURRERATUA**

Bista Eder, 19 Tel. 943 700 082 info@bistaeder.es

Kolegiatu. Billa. 1000103

**Amaia Esnaola**  
ODONTOLOGIA

Fermin Galbeton 99-1 ezk. Eibar  
943 20 72 17 | 660 42 28 08  
amaia@esnaolaodontologia.com

**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PACI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Iribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnua. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO  
ZURIARRAIN** ODONTOLOGOEA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896**

IRPS 74/23

**Unzaga Plaza**  
Hortz Klinika - Clínica Dental

**M. Orozco Ventura** doktorea  
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar  
Tel.: 943 70 23 85

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
978 Kolegiatu Billa.

- INDIATERAPIA
- KIROI LESIOAK
- Función seca TRATAMENDUAK
- K-stretch + HIPOPRESIOAK

**FISIOTERAPIA  
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

Dra. Laura Martínez  Dr. Alejandro Recas

**GINECOLOGÍA  
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



**943-206776**

# Jarraitu gaitzazu!

[www.etakitto.eu](http://www.etakitto.eu)



@etakitto



Eibarren Akebai plataformako Arkaitz Urangarekin eta Eibarko Euskaraldiaren Hamaikako-ko kide den Helene Otaduyarekin elkartu gara Euskaraldiaren nondik norakoak jakiteko. Maiatzaren 15etik 25era egingo da ariketa sozial horren laugarren edizioa.

**eta kitto!**  
eusgara elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

# Eskutitzak



## "Saillatu zure hondakinak" inguruko hitzaldiak

Azken aldian arlo horretan izandako aldaketak direla eta, hondakinen saillapenari eta txartel marroiaren erabilerari buruzko hitzaldiak antolatu ditugu datorren asterako. Gure asmoa da horren inguruko azalpenak partekatu eta zalantzak argitzeko aukerak eskaintzea.

Aipatutako hitzaldi horiek apirilaren 8an, 9an eta 10ean eskainiko dira gure Nagusien Zentroetan. Hilaren 8an (martitzena), 17:00etan hasita, Urkiko Nagusien Zentroan. Hilaren 9an (eguztena), 18:00etan hasita, Ipuruako Nagusien Zentroan. Eta hilaren 10ean (eguztena), 17:00etan hasita, Beheko Tokia Nagusien Zentroan.

**Urki, Ipurua eta Beheko Tokiko Nagusein Zentroak**

# Hortik esanak



Txinako gobernuak ideia bat izan du: humanoideak izango dira adinekoen zaintza lanetan arituko direnak. 2024aren amaieran argitaratutako txostenean gobernuak adinekoak zaintzen dituzten humanoideen garapen azkarra ezarri du helburu nagusietako bat bezala, eta adimen artifizialaren sektoreko enpresei robot mota horiei lehentasuna emateko deia egin die. Wuhanen, adibidez, 3D eskaneatzeari esker senideen itxura bera duten robotak sortzeko sistema aurkeztu dute. Oraingoz, humanoideen produktzioa garesti samar ateratzen den arren, pixkanaka ekoizpen kostuak murriztu eta robot horietako bat 10.000 bat euroan izango dute herritarrek eskura, prebisioren arabera.

**OLATZ URKIA, korrespontsala Txinan**

Nazioarteko hitzarmenek genero-indarkeria kasuetan bitartekotzarik ezin dela egon badiote ere, niretzat okerra da. Ez diot zigorrik ez dela egon behar, baina bai malguago jokatu behar dela; zigor egokiagoak behar ditugu, aberastuko gaituztenak batzuk besteen aurka ipini beharrean. Epaille nintzenez gizon bat bota nuen bere etxetik, ez nuen beste aukerarik esku artean, eta handik bi egunera bere buruaz beste egin zuen. Zigortua, kabroi hutsa izanda ere, gizakia da azken batean. Zigorra ezartzearen txarrena axolagabetasuna da; ahalegindu behar gara zigortuak ez dezan lurra jo.

**MANUELA CARMENA, Madrilgo alkate ohia eta epaille ohia**

Suhiltzaile bati euskara exijitu nahi? Ez du ez bururik, ez hankarik. Egunen batean ezusteko mingotsa izan arte. Sutea piztuko da eta suhiltzaileak ez du asmatuko euskaraz baino ez dakien bost urteko umearekin komunikatzen. Albistea argitaratuko du egunkari unionistak. Irakurleek negar egingo dute ume gaixoagatik eta guraso talibanak madarikatuko, euskaraz mintzo zirelako etxean. "Zergatik ez zioten lehen-lehenik gaztelania irakatsi haurrari?". Ez dute galdetuko zergatik Administrazioak ez zion euskara eskatu suhiltzaileari. Ez dute ulertu gura komunikatzeko unean euskaldun elebiduna beti izango dela askoz ere hobe erdaldun elebakarra baino.

**JOSE MARI PASTOR, zutabegilea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PIEZAKUAN** → Piezako ordaindutzen zen lana. Gaztelarazko 'a destajo'. "Eibarren piezakuan lan egittia nahixago izaten dau bihargiñak".

## Argazki zaharra

1937

Eibar  
bonbardaketa  
eta gero

Urte horretako apirilaren 24 eta 25ean, ordurako artilleriak birrinduta zegoen herria Gezi Beltzak italiar hegazkinak gogor bonbardatu zutena, herrian sutea zabalduz. Zazpi tona bomba baino gehiago jaurti zituzten.

INDALECIO OJANGUREN FUNTSA



## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 4</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>ZAPATUA 5</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>DOMEKA 6</b>
<b>EGUNEZ   Morgado</b> (San Agustin, 3)
<b>ASTELEHENA 7</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>MARTITZENA 8</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUAZTENA 9</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>EGUENA 10</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>BARIXAKUA 11</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)

**GAUEZ BETI**, 2025ean,  
Lekunberri (Isasi, 31)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Begoña Etxaniz Urkidi.**  
81 urte. 2025-03-26.
- **Juana Cuesta Sacristan.**  
80 urte. 2025-03-28.
- **Pedro Aierbe Zabaleta.**  
79 urte. 2025-03-28.
- **Francisco Javier Luke Muriel.**  
59 urte. 2025-03-30.
- **Arrate Arrieta Maiztegi.**  
72 urte. 2025-03-31.
- **Maria Rosario Ruiz Garai.**  
79 urte. 2025-03-31.



## Aspacek bere jai-eguna ospatuko du zapatuan Errebal plazan

Aste honetan aurkeztu dute mende erdia ospatzeko antolatu duten jaia Eibarko Udalean, eta bertan egon dira Jon Iraola alkatea, Rosa Iglesias Aspace Gipuzkoako presidentea, eta bi haurren amak diren Nagore eta Pilar. Azaldu dutenez, kalejira batek emango dio hasiera ekitaldiari, 17:00etan. Untzagatik irten eta Errebalerraino joango dira, trikitalariekin eta Algaraklown taldeko pailazoekin batera. Jaia Erre-

bal Plazan izango da: 18:00etatik aurrera, Algaraklown taldekoen eskutik jolasak eta animazioak egingo dira, baita Simon Ezquiagaren emanaldia eta Alain Zulai-ka ilusionistaren ikuskizun bat ere. Ospakizuna Fredy eta Hugo DJek girotutako disko-festarekin amaituko da, eta Azitaingo sukaldaritza-eskolarekin elkarlanean antolatutako merienda bat ere egongo da.

## Nordic Walking tailerra eskainiko dute dohainik maiatzaren 16an

Eibar Mogidu herriko inizatibak antolatuta, datorren maiatzaren 16an martxa nordikoko tailer berri bat egingo da Unbe kirol-gunean. Tailerra martxa-modalitate honetan hasi nahi duten guztiei zuzenduta dago eta "gorputz-jarrera hobetzen edo bizkarra indartzen" lagundu dezake. Tailerrak zati teoriko bat eta beste zati praktikoa izango ditu, eta ez da materialik eraman behar bertan parte hartu ahal izateko.

Tailerra doakoa da eta 10:00etatik 12:00etara egingo da. Parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da edozein kiroldegitan aurrez aurre izena ematea maiatzaren 13a baino lehen. Ekimen berri honek Ibilixan (15ean behin, herrian zeharreko paseo osasungarriak) eta Mugigelak jarduerekin bat egiten du (bi mugimendu-gela, astean behin, Ipurua zein Orbea kiroldegietan). Jarduera guztiak dohainik egin daitezke.

## Puzgarriak jarriko dituzte igerilekuan Aste Santuan

Aste Santuko oporraldian haurrek jarduera bereziaz gozatu ahal izango dute Ipuruako Kiroldegia. Zehazki apirilaren 14, 15, 16, 22, 23, 24 eta 25ean, uretako puzgarriak eta jolasak jarriko dituzte 4 eta 13 urte bitarteko haurrentzako. Ekimena arratsaldean izango da, 17:00etatik 19:00etara. Lehenengo orduan, 17:00etatik 18:00etara, 4 eta 8 urte bitarteko haurrak sartu ahal izango dira. Heldu batek lagunduta egon beharko dute (laguntzaileek ez dute sarrera ordainduko), eta bigarren ordua 9 eta 13 urte bitarteko haurren txanda izango da. Doakoa izango da abonatuentzat, eta abonatu ez direnek instalaziorako sarrera arrunta ordaindu beharko dute (4,95 euro).



## Zozketatu ditugu Errigorako bi otarrak

Errigoraren bi otarren zozketa egin dugu aurreko astean, eta irabazleak Uxue Igarza Loiola eta Roberto Sagredo Cabrera izan dira. Zorionak biei eta on egin! Eta saririk eraman ez duzuenek eskerririk asko gure zozketan parte hartzeagatik. Hurrengo batean akaso zuen jasoko duzue saria eta.



**SARIDUN ZENBAKIAK**

**NUMEROS PREMIADOS**

SAGARRA	Begoña P. Altzun	Nº4367
CASINO A. EIBARRRES	Esteban Orroz	Nº4510
SALEGI	Lidia Kuruoglia	Nº5880
SARATZE	Mauri Martín	Nº2096
BELAUSTEGI	Elisabet Eguren	Nº0679
KONTENT	Angel de la Torre	Nº2273
BULEBU	Esther Galarza	Nº5528
PIPER	Maitie Zanguita	Nº2277
LANDA	Marina Barrena	Nº2326
KISKA	Yolanda Capelo	Nº9136



# Greziako errefuxiatuei jaten emateko 12.000 kilo bildu dira

Debabarreneko erronka solidario-ko antolatzaileak eta laguntzaileetako asko elkartu ziren martitzen arratsaldean Urkotronik vending enpresaren egoitzan, Zaporeak proiektuarentzat bildu denaren berririk emateko. Aurreko astean eskualdeko herrietan egin zen elikagaien bilketak harrera ezinhoba izan du beste behin, eta Greziara laster bidaliko diren 12 tona janari biltzea

lortu dute, “gutxi gorabehera, urtea amaitu arte ez baitago zehatz jakiterik”. Gainera, rifen salmentari esker Zaporeak proiektuari laguntzeko 5.000 euro baino gehiago bildu dituzte, eta horri dohaizak eta bestela jasotako batuta, guztira 12.000 euro inguru izango direla kalkulatu dute antolatzaileek.

Zaporeak erronkaren kanpaina ixteko ekitaldia aurten Ermuan

egin da. Zapatuan izan zen eta, aurreko edizioetan bezala, jendeak oso ondo erantzun zuen. Ekitaldian omenaldi hunkigarria egin zioten orain dela hilabete batzuk hil zen "Casa Tiburcio" jatetxe donostiarreko Tibur Eskisabel sukaldariari.

Sukaldariak goiz osoa eman zuten Orbe kardinalaren plazan, lentejak bakailaoarekin eta arroza Lumagorriekin prestatzen, ondoren saltzeko. Horrekin batera, janaria bidaltzeko gastuei aurre egiteko saldu dituzten rifen zozketa egin zuten amaieran.

## Maria Rosario Ruiz Garay "Rosi"

2025/03/31

ESKERRIK ASKO une latz hauetan gurekin egon zareten lagun eta familiako guztioi.

- ETXEOAK -

## Aitor Ibartutxi San Pedro

**1. URTEURRENA**  
2024/04/03

*Oi, Euskal Herri, eder maitea, hara, jemen zure semea. Bere lurrari muin ematera beste gabe etorria! Zuregaitan emango nuke pozik bai nere bizia, beti zuretzat, hil arteraino, gorputz ta arima guztia.*

- ETXEOAK -



## Pentsio duinak denontzat eskatzeko manifestazioa egingo da bihar 12:00etan

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak manifestazioak deitu ditu biharko Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, eta Eibarren ere hala egingo da, 12:00etan Untzagatik abiatuta. Eskaera nagusiak deialdirako aukeratu duten goiburuekin bat datoz: “Soldata eta pentsio duinak dagoeneko hemen, gutxieneko soldataren pareko gutxieneko pentsioa guztientzat. Lanbide artekoa”.

Eibarko Pentsionisten Taldetik adierazi dutenez, “aldarrikapen horiekin, langileei, pentsiodunei, gizon eta emakumei, eta gazteei dei egiten diegu bihar eguerdian Untzga Plazara joan eta manifestazioan parte har dezatela, langile eta pentsiodun guztiei bizi-baldintza duinak izatea bermatuko dieten soldata eta pentsio nahikoak eskatzeko. Pertsona guztiok gara ezinbestekoak: guztion esku dago aberastasunaren banaketa ekitatiboan oinarritutako gizarte bat eraikitzea, eta guztiok dugu parte hartzeko toki bat”.

## Gure Eskuk Itzulian ikurriñak eramateko deia egin du

Apirilaren 10 eta 12an Itzulia Eibartik pasatu eta bukatuko dela aprobetxatuz, Gure Eskuk herritar guztiak animatu nahi ditu Arrateko bidera ikurriñekin joatera, “gure nazio-izaera eta erabakitzeke eskubidea aldarrikatzeko”. Eibarko Gure Eskutik adierazi digutenez, “erronka handiak bizi ditu Euskal Herriak: euskararen aurkako oldarraldi judiziala, geure kultura eta nortasunaren biziberritzea, nazioarteko egoera nahasia... Horiei erantzun ahal izateko, erabaki guztiak bertatik hartzea ezinbestekoa dugu. Herri bat gara eta geure etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki nahi dugu”.



## Eibarko dendariak udaberri-udako moda erakutsiko dute gaur Errebal Plazan

“Eibar Modan” desfilearen edizio berri bat antolatu du Eibarko Dendarien Elkarteak, Eibarko Udalaren, Merkataritza Gune Irekiaren eta Noelia Oportoren laguntzarekin. Gaur egingo da, Errebalen, 20:00etan. Gure herriko 25 dendek hartuko dute parte bertan, eta desfilatzen 50 lagun inguruk jardungo dute. Modaz gain, musika, dantza eta askoz ere gauza gehiago erongo direla aurreratu dute (DJ

Arno, Kaxako Kxxs taldearen dantzak...). Sofia Machin izango da aurkezlea, eta argazkiak Marta Prolek egingo ditu. Bestalde, Marsi loradendak apainduko du pasarela. Parte hartuko dute, besteak beste, Vieco, Ikusi, Helmet House, Ditare, Askasibar, Federopticos Igmarr, No Comment, Hartara, Zentral Optica, Gigil Design, Design by Nona, Bambi, Kopiaña, Irritsa, Gratzina...





## Deparkel elkarteak ate irekiak antolatu ditu Parkinsonaren egunaren harira

Apirilaren 11a Parkinsonaren eguna dela eta, hori ospatzeko asmoa daukate Deparkel Debarreneko Parkinson Elkartekok: “Arratsaldean ate-irekien jardunaldia izango dugu, 16:30etik 18:30era, eta nahi duten guztiak gerturatzera animatu nahi ditugu, ongiatorriak izango dira eta. Horrela gure lokala eta bertan egiten duguna ezagutuko dute, eta mokaduxoren bat hartzeko aukera ere egongo da”. Deparkelek Ardantza leian dauka egoitza.

## AUTUAN

### 1995. URTEAN JAIOTAKOEN JAIA MAIATZAREN 31n

1995ean jaiotako kinto-jaia antolatzen ari dira eta jendea apuntatzera animatu nahi dute: “1995ean jaiotako zinen eta 30 urte beteko dituzue aurten? Kintadara animatu zaitez eta ospatu hamarkada berria maiazaren 31n! Eman izena QR kodean. Laster arte!”.



## LAN ESKAINTZA

### Kazetari-diseinatzailea behar da

#### ESKATUKO ZAIO

- Kazetaritza, komunikazioa edo pareko unibertsitate ikasketak izatea.
- Euskara maila oso ona izatea.
- Eibarkoa izatea edo Eibar ondo ezagutzea.
- Diseinu grafikoan prestakuntza izatea.

#### ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi osoko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin).
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea.
- Ordu-tegi malgua.
- Proiektu erakargarria/ Langiro atsegina.

#### BALORATUKO DA

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea.
- Multimedia kazetaritza: sare sozialak, webgunea...
- Bideogintzan eta argazkigintzan ezagutzak izatea (Adobe Premiere, Photoshop edo antzerakoak).

CVak bidaltzeko epea  
apirilaren 28ra arte

[elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)

**eta kitto!**  
euskara elkartea



# Egitarau berezia prestatu dute 1931ko apirilaren 14 hura gogoan



Bigarren Errepublikaren aldarrikapen egunaren 94. urteurrena beteko da apirilaren 14an eta, hori ospatzeko, hainbat jarduera antolatu ditu Udalak. Batetik bisita gidatua egingo da eta, horrekin batera, argazki historikoen horma-irudiak ipiniko dituzte kalean. Eta bestetik, hilabete honetan hasita, berriz ere zabalduko dute Arraten dagoen Gerra Zibilaren Interpretazio Zentroa.

**E**spaniako Bigarren Errepublika Eibarren beste inon baino lehen aldarrikatzeak gure herriarentzat duen garrantzia ulertu nahi dutenentzat benetan gomendagarria da apirilaren 13rako antolatu duten bisita gidatua. *Untzaga Plaza, oroimenaren lekua* izena ipini diote, eta gaian aditu handia den Jesus Gutierrez historialari eibartarrak gidatuko du. Bi saio egingo dituzte: lehena 11:00etan izango da, gazteleraz, eta bigarrena 12:30ean, euskaraz. Udaletxeko arkupeetan bilduko da taldea, eta handik hasiko da ibilbidea, herrian zehar, tokirik esanguratsuenak ikustera joateko. Geldialdi bakoitzean interes handiko azalpenak ematen joango da Gutierrez. Izen ematea orain dela aste batzuk zabaldu bazen ere, baliteke oraindik toki libreak geratzea, berez epea apirilaren 7ra artekoa da-eta. Eibarko Udalaren web orrian dagoen esteka hauetako formularioaren bidez eman daiteke izena (aldameneko QR kodea eskaneatuta zuzenean eramango zaituztete izen-emateko orrira).

## **Errepublika garaiko irudi esanguratsuak kalean erakutsiko dituzte**

Bisita gidatuaz gain, apirilaren 14an argazki historikoak dituzten horma-irudiak jarriko dira herriaren hainbat tokitan, Bigarren Errepublikaren aldarrikapena gogoratzeko. Ego Ibarra batzordetik azaldu digutenez, Udal Artxibotik zein beste bilduma batzuetatik Errepublika sasoiko irudi esanguratsu batzuk aukeratu dituzte, kalean erakusketa modukoa prestatzeko. Egunerako ipiniko dituzte kale ezberdinetan, eta hainbat egunez lagako dituzte, jendeak ikus ditzan. Hala ere, ez dira betiko izango, behin urteurrena igarota, handik denbora batera kendu egingo dituzte eta. Herritarren artean jakinmina pizteko asmoz, erakutsiko diren

Bisita gidatua egiteko  
izen-ematea.



argazkiak zeintzuk diren ez dugu aurreratuko. Hala ere, esan dutenez, batzuk ezagunak izango dira askorentzat, baina horren ezagunak ez diren beste batzuk ere ikusi ahalko ditugu.

Eibarren modu berezian bizi izaten da Bigarren Errepublikaren urtemuga urtero, eta eibartar askorentzat lehen bandera Eibarren ipini izana harrotasunerako motiboa ere bada. Orohar, maitasunez eta nostalgia puntu batekin begiratzen diogu gaur egun 1931ko apirilaren 14ari. Eibarko Udal Artxiboan horrela dago jasota egunaren kronika: "1931ko apirilaren 14an, goizeko seietan, Alejandro Telleria buru zutela, zinegotzi hautetsiek kargua hartu zuten bilkura publikoan, ondoren Errepublika aldarrikatu zuten, eta sosegu publikoaren berme izango zen ordenamendu berria eraikitzeari ekin zioten. Horrela hartu zien aurrea Eibarrek estatuko gainerako hiriei eta hiriburuei eta, hori dela eta, Niceto Alcalá Zamoraren Gobernuak "Oso hiri eredugarria" titulua eman zion Eibarko hiriari".

**Gerra Zibilaren Interpretazio Zentroa zabalik berriro** Errepublikaren aldarria gogoratzeko antolatu dituzten bi jarduera horien osagarri gisa, Arraten dagoen Gerra Zibilaren Interpretazio Zentroa berriz zabaltzen hasiko dira apirilean. Luzaroan itxita egon den interpretazio zentroak lehenengo martxari jarraituko dio aurrerantzean. Horrela, asteburu honetan bertan hasita domekero zabalduko dute, 11:30etik 13:30era, Aste Santuko jai-egunetan ere bai, baina abuztuko hiru asteburutan (10ean, 17an ta 24an) itxita egongo da.

Gerra Zibila ezagutu zuten eibartar gutxi batzuk geratzen badira ere, atzetik etorri garenontzat zaila da Eibar inguratzen duten mendietan bizi izandakoa irudikatzea. Baina hori ere gure historiaren parte bat da eta ezagutzea merezi du. Asmo horrekin zabaldu zuten Interpretazio Zentroa 2015. urtean. Bisitan joanez gero, denboran atzera egin daiteke, eta gure aitxita-amaek bizi izan zutena hobeto ulertuko dugu. Izan ere, Gerra Zibilean, zazpi hilabetez, Eibar fronte bilakatu zen. Hiriguneak bonbardaketak eta tiroak jasan zituen, eta erabat suntsituta geratu zen. Baina, horrekin batera, inguruko mendiak ere borrokaleku bilakatu ziren, anaiak anaien kontra aritu ziren borrokan, eta horren lekuko izan ziren oraindik geratzen diren trintxerak.



## Errepublikaren aldarri egunean eibartar guztiak kalera irten ziren eta jai haundiarekin ospatu zuten



Alejandro Telleria (1876-1939), Errepublika aldarrikatu zuen alkatea (lehenengoa ezkerretik). EIBARKO UDALARTXIBOA.

# “Debabarrenean era askotako planak egiteko aukera dugu, baita oso ondo jateko ere!”

UNAI ALTUNA • Sukaldaria



Martxoaren 28az geroztik menu berezietz gozatzeko aukera dugu eskualdeko sei jatetxetan. Debabarrena Gourmet ekimen gastronomikoa jarri dute antolatzaileen berbetan “jatetxe erreferenteak” diren hauetan. Baratze jatetxea da Eibarko ordezkaria eta Unai Altuna sukaldariarekin solasaldia eduki dugu ekimenaren eta gastronomiaren inguruan.

**U**nai Altunak 2018an ekin zion Baratzeren abenturari. Gertuko eta sasoiko produktuek protagonista diren proposamena eskainiz, Eibartik mundura jauzi egiteko moduko zaporeak sortzen ditu eta, horrela, tokia egin du herrian eta herritarren sabeletan. Eibarren eta Debabarrenean jateko eta dastatzeko ditugun aukerak nabarmentzen ditu sukaldariak, Debabarrena Gourmet bezalako ekin-tei garrantzia emanez. Bertan, zazpi plateroko menua eskaintzen du (bi postre barne), produktuekin, zaporeekin eta teknika ezberdinekin jolastuz, eta hori guztia txakolinarekin edo Errioxako Valdelana familiaren ardoekin lagunduz.

## **Prestatu duzuen menuari zein ardo egokitzen zaio hobeto?**

Ardo biak dira zoragarriak. Dastaketa egin genuen eta, agian, zuria gehiago gustatu zitzaidalda esango nuke, baina beltza asko gustatu zaie jatetxera etorri direnei. Zuria malvasia mahatsekin dago eginda eta ohiko ardo zuriekin alderatuz aukera ezberdinak eskaintzen ditu. Izan ere, Errioxan badago malvasia ardoa, baina ez hainbeste, Kanariar Uharteetan da ohikoagoa. Menuarekin bi ardoak edan daitezkeela esango nuke. Batzuk

beltzarekin hasi dira eta zuriarekin amaitu dute, eta beste batzuk alderantziz. Platerrak ez dira oso fuerteak, zapore suabeak dituzte orokorrean.

## **Normalean, ardo zuria zapore suabeekin lotu izan da eta ardo beltza okelarekin eta horrelakoekin...**

Bai, baina kontzeptu hori aldatzen ari da. Batzuek ardo zuriarekin hasi eta amaitzen dute menua. Are gehiago, badago edozein menu jateko cava bakarrik edaten duen jendea, Katalunian batez ere.

## **Menua diseinatzeko orduan zer lortu nahi izan duzu?**

Alde batetik, kozinatzeke nahiko erraza izatea. Hau da, sukaldean arazo handirik ez sortzea. Eta, bestetik, elaborazio ezberdinak eskaini nahi nituen. Adibidez, berenjenari miso kutsua eman diogu, egosketa ezberdinak egin ditugu, konfitatuak, papa iberikoa carpaccio moduan jarri dugu, apionabo emultsioa, sekretu iberikoa tenperatura baxuan egin dugu (poltsa barruan zapore guztiak kontzentratzen dira eta gero plantxan egiten dugu), patata errea eta mojo berdea jarri dugu Kanariar Uhartei keinu eginez (ardoarekin lotuz), eta abar. Bestalde, menu polita, gozoa eta ekilibratua egiten saiatu naiz.

## **Ekilibratua zaporeei dagokienez?**

Zaporeei eta kantitateari dagokienez. Menuak zazpi



Baratze jatetxeko sukaldean sartu gara Unai Altuna sukaldariarekin.

plater dituela ikusten dutenean, askori gehiegi dela iruditzen zaie, baina jendea ondo heltzen da bigarren postrea jatera. Beteta, baina ondo, plater guztiak janda. Amaierara beteta heltzea ez da seinale ona izaten. **Betetze horretan nolako papera jokatzan dute produktuek? Beti ez da gauza bera lortuko (tamainari dagokionez, adibidez), ezta?**

Bieirak urte osoan zehar lortu daitezke; alkatxofa denboraldia amaitzean da, baina badaude; lupia lortzeko beste sasoi bat izaten da hobea, baina orain ere badago; iberiar txerria ere urte osoan dugu... Sasoiko produktuekin egin dugun lan, baina badakigu urte osoan zehar lortu daitezkeen produktuak daudela.

**Baratzen beti egin duzue sasoiaren sasoikoa eskaintzearen aldeko apustua, ezta?**

Bai, sasoioko produktuak erabiltzen saiatzen gara eta, bertakoak badira, hobeto.

**Hain zuzen ere, gertukoari eman nahi dio garrantzia Debabarrena Gourmetek.**

Hori da asmoa, baina beti ez da erraza izaten. Menuarekin egin bezala, bertako eta kanpoko produktuen arteko oreka bilatzen saiatzen gara.

**“Bertako produktuak kanpoko kontzeptuekin lantzea barneratu behar dugu. Jendeak zerbait ezberdina behar du”**

**Pentsatzen duzu hemengoari ez diogula merezi duen garrantzia ematen eta kanpora begiratzen dugula gehiegi?**

Bertako produktuak kanpoko kontzeptuekin lantzea barneratu behar dugu: beste elaborazio batzuk erabiltzea, beste herrialde batzuetako hornigaiak... Jendeak zerbait ezberdina behar du. Produktua berez da garrantzitsua, batzuetan ez du gehiagorik behar, baina dastatzeko menua sortzen duzunean elaborazio ezberdinak egiteko eta guarnizio ezberdinak jartzeko aukera daukazu.

Informazioa Debabarrena  
Gourmet-en webgunean:



### **Nolako prozesua jarraitzen duzu menua diseinatze-ko orduan?**

Gure kasuan, sukaldean sartzen gara eta probak egiten ditugu. Dena dela, gaur egun liburuetan eta abar ondo dago zehaztuta nolako egosketak egin behar dituzun gauza bat edo beste lortzeko, eta ez zara etengabe probak egiten ibili behar. Baina bestela bai, gauzak egin ahala probatu egiten ditugu, menua bere osotasunean ere, eta menua ematen hasten garenean, lehenengo aldietan, mahaikideei galdetu egiten diegu, neurria hartzeko eta gustatu zaien jakiteko.

### **Hasi besterik ez da egin, baina nolako harrera izan du Debabarrena Gourmeteko menuak?**

Ez da Tripontziak ekimena bezala, prezioa ere ezberdina delako (Tripontziak menuak 35 euro balio du eta honek 65 euro), baina badago mugimendua. Aurreko asteburuan 20-25 menu eman genituen, eta asteburu honetarako baditugu erreserbak. Gainera, sukaldean ondo antolatuta dugunez, erreserban zehaztu ez badute ere, menu hau jaso nahi izanez gero, emateko moldatu gaitzke. Ikusten dena da gero eta jende gehiagok nahiago duela menu itxia aukeratzea, badakielako zenbat ordainduko duen. Guretzat ere ona izaten da, badakigulako zer eta zenbat erosi behar dugun eta nola antolatu behar garen, baina beno, dena ezin da menua izan, momentuan eskatzeko eta errazioak hartzeko aukera ere eman behar da. Horrek karta aldatzeko aukera ematen dizu.

### **Udaberrian, adibidez, zein produktu sartu daitezke kartan?**

Antxoa, berdela, atuna etorriko da laster, alkatxofak izan ditugu denbora askoan, piperminak eta piper berdeak etorriko dira... Nekazariarengana joan eta zer duen galdetzen diogu. Barazkiak ere sasoiaren sasoiako izaten dira.

### **Eta udaberrian mugimendu gehiago dagoela ere igaritzen duzue?**

Neguan, jendea asteburuetan asko irten da (eguenetik domekara), baina astean zehar agian gutxiago, eta hori ez duela oso negu txarrik egin. Gero, ordu aldatetarekin, jendea apur bat gehiago geratzen da kalean; ekainean



## **“Sasoiko produktuak erabiltzen saiatzen gara eta, bertakoak badira, hobeto”**

ere, umeez eskola amaitzen dutenean, gauzak aldatzen dira... Urtero gertatzen da antzera.

### **Urtero egiten dira zenbait lehiaketa eta ekimen gastronomiko ere: Gilda Lehiaketa, Pintxo Lehiaketa, Tripontziak... Garrantzitsuak dira horrelako ekimenak?**

Debabarreneko ostalaritzari eta turismoari buelta bat emateko asmoz dihardute lanean Debegesatik, eta gastronomiaren aldetik badago mugimendua. Tolosaldean, adibidez, horren inguruko kultura asko dago eta hemen ere bultzatu behar den zerbaite da, ahalmena dugulako. Kostaldeko herriak ditugu, barnealdekoak ere, jatetxe ugari, Mendaron txokolatea egiten da... Debabarrenean mota askotako planak egiteko aukera dugu, eta baita oso ondo jateko ere!



OSKAR ARANTZABAL

## Monarkiarik gabeko Eibar baterantz

Sarri baino sarriagotan entzun (eta esan) dugu *“txingarra baino gorriagoa dela (edo zela) errepublikanismo eibartarra”* (edo, nahiago baduzue, erret kontuez erreta).

Historiako liburuetan (eta zuloz betetako gure udaletzeko fatxadan) iltzatuta geratu da 1931ko apirilaren 14ko hura, berriki memoria lekua izendatua gainera. Historiaren ironiak, Eibarren lehenengo mailarako igoerak Untzaga Plaza jendez mukurru bete zuen 2014ko udaberrian eta, biharamunean, beste errege bat erori... sare sozialetan *rending topic* bihurtu zena, batez ere halako beste baten zain (bi zentzuetan).

Gogora ekar dezagun *trantsizio intratotalitarioan* (zoritxarrez demokratikoa München baztertu zen 1962an, ondo dokumentatua dagoenez), diktadore odoltsu batek (besteak beste Eibar bonbardatu zuena) inork bozkatu ez zuen errege bati bere boterea transmititu ziola (Pinochet gonbidatua lekuko). Lekutan geratzen dira Felipe Gonzalezek Astelena frontoian botatako *“Gora Euskadi askatuta!”* hura (1976ko otsailaren 15ean) edota Adolfo Suarezek, errepublikaren aldeko bozka gailenduko zela jakitun, kontsulta ukatu izana (nork dio beldurra demokraziari?). Are okerrago, lehen ez bezala, zuen karnet berrietan (nortasun agiri “nasionalean” eta gida baimenean) REINO de ESPAÑA, letra larriz datorkigu larrizera.

Indar armatu guztien buru eta legez errege “bortxaezin” hark (*“bere izenik ez nuke gogoratu nahi”*) 1983ko ustezko estatu kolpe baten antzezle izateaz gain (nork dio beldurra desklasifikatzeari?), gerora meritu handiko eskandalu emerituak gauzatu zituen. Berriki semeak –hau ere aukeratu gabea– “agenda arazoengatik” ez du parte hartzerik izan faxistaren heriotzaren 50. urteurrenekoetan.

Hego Euskal Herri osoan (Nafarroa Garaia barne, zalantzak uxatzeko) eroldaren %34ak besterik ez zion baietz esan 1978an Espainiako konstituzioari –Gipuzkoan %28ak, Eibarren %35ak–. Nazioarteko zuzenbidean inolako zilegitasunik ez duena, adibidez Montenegrori independentzia erreferendumean %50eko parte hartzea eskatu zitzaion, hemen %48koa baino izan ez zenean.

Herrialde Katalanetan, Gironako udalak 2017an Felipe VI.a *“persona non grata”* izendatu ondoren, 2023an monarkiatik deslotu zen (zinegotzien bozken %63arekin eta PSCren abstentzio esanguratsuekin) herri ekimen bati esker. Gertuago, Plentziak bere burua euskal errepublikako kide aitortu du 2024an. Zertarako balio duen? Lotsatzen ibili beharrean, munduan duintasunez aritzeko, eta ez da gutxi garai likido hauetan.

Eta zuek zer diozue, Eibarko PsoE (PARTIDO socialista obrero ESPAÑOL)? Aurten ere apirilaren 14an bandera trikolorearen aurrean alkatearen beste antzezpen absurdu bat? Politikan denetarik egin daiteke, erridikulua izan ezik.

**"Aurten ere apirilaren 14an bandera trikolorearen aurrean alkatearen beste antzezpen absurdu bat?"**



# Euskaraldirako berotzen

Maiatzaren 15etik 25era egingo da Euskaraldiaren 4. edizioa. Hilabete eta erdi falta bada ere, Bulego taldeak ekimen horretarako sortu duen abestiarekin lotura egingez, gure bihotzaren taupadak bizkortzen hasi dira ariketa horretarako prestatzen. Dagoeneko, Eibarren osatu da Euskaraldiaren Hamaikakoa eta zabalik dago izena emateko epea, izan Ahobizi, Belarriprest edo entitate bezala aritu.

BIDEOA



**E**uskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko jaiotzen 2018an. 11 eguneko praktika sozial masibo baten bidez eta egunero harremanetan euskara lehene-tsiz, herritarren hizkuntza-praktika aktibatzea eta euskararen erabilera handitzea nahi zen. Harrezkero, beste bi edizio egin dira, 2020an eta 2022an, denak azaroan hasita eta Euskararen Egunaren (abenduak 3) inguruan amaituta. 4. edizioa, osterara, udaberriaren egingo da, eta helburuak berdina izaten jarraitzen duen arren, hauek zabaltzeko unea iritsi dela diote ekimenaren antolatzailuek: “Ez da soilik ariketa egun horietara mugatzen den dinamika, euskararen erabilera aktibatze mugimendua elikatu eta gizartean erroto nahi duen ekimena baizik”.

Horretarako, Euskal Herri osoan lan-taldeak martxan jarri dira, baita Eibarren ere. Hamaikakoa sortu dira, Euskal Herri osorako eta herri bakoitzean, eta hemen ere badugu

gurea. Gure hamaikako horretako kide den Helene Otaduy eta berearekin eta Eibarren Akebai plataformako Arkaitz Urangarekin elkartu gara ariketa sozial horren inguruan gehiago jakiteko.

Aipatu bezala, edizio honetako berritasunik handiena data aldatzea izan da, hau da, udazkenean beharrean udaberriaren egingo dela. Eta horrek nolako eragina izan dezake? “Eguraldiaren aldetik, ordu aldetik, argi aldetik... Horrek guztiak eragiten digu eta horrelako ariketa sozial bat egiterako orduan garrantzitsua iruditzen zitzaigun faktore horiek kontuan hartzea”, diosku Urangak. “Badirudi aldatetarako erantzun positiboa diharduela izaten”.

## Euskaraldiaren rolak

Euskaraldiko parte-hartzaileek bi rolen artean aukeratu beharko dute: Ahobizi edo Belarriprest. Edizio guztietan egon diren rolak dira, baina zalantzak argitze aldera, hona





Helene Otaduy Eibarko Euskaraldiaren hamaikakoko kidea eta Eibarren Akebai plataformako Arkaitz Uranga. EKHI BELAR

hemen rol bakoitzaren ezaugarrien azalpena:

Ahobiziak euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten du uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakienean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditu; eta euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen du.

Belarriprestak, ostera, aldiro erabakitzen du euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez du euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek eurei euskaraz hitz egitea nahi du, eta horixe eskatzen die modu esplizituan.

Ahobizi edo Belarriprest moduan izena eman nahi izanez gero, izenematea.euskaraldia.eus helbidera jo behar da, rola aukeratu eta izapideak bete. Zentzu horretan, Urangak gauza bat laga nahi du argi: “Rol bakoitzak ez du zerikusirik

hizkuntza gaitasunekin. Hau da, euskaldun oso eta funtzionala izan zaitezke eta euskaraz guztiz bizi, eta Belarriprest izatea erabaki. Rolak portaerari eragiten dio”.

Norbanakoez gain, ariketa soziala izanik, entitateek (elkarteeak, enpresek, dendeak, kirol taldeek...) ere hartu dezakete parte Euskaraldian. Horren bitartez, entitateetan ariguneak sortuko dira euskaraz lasai aritzeko, komunikazioak euskaraz egingo dira eta euskararen presentzia indartzeko beste neurri batzuk hartuko dira (hizkuntza harrera planak, barne politikak, eta abar).

Udalak jakinarazi duenez, Eibarko 40 entitatek baino gehiagok eman du izena eta, eurek egin bezala, bertan parte-hartzeko gonbidapena luzatu dute entitateak, euskaraldia.eus/parte-hartu webgunearen bitartez.

**>>> Euskaraldiaren 4. edizioa egingo da maiatzaren 15etik 25era, eta izen ematea zabalik dago**



Otsailean aurkeztu zuten Eibarko Euskaraldiaren hamaikakoa. SILBIAHERNANDEZ

## >>> Euskaraldiak irauten duen 11 egunetatik harago euskararen erabilera aktibatzea da helburua

### Herritarren parte-hartzea

Eibarko Euskaraldiaren enbaxadore izango diren hamaika kideak aurkeztu zituzten otsailean: Davide Cerchi, Jol Igartua, Aitor Muniozguren, Mohamed Fadel, Jon Alonso, Aresatz Usobiaga, Josune Garro, Simone Begiristain, Soko Baskaran, Najiba Benslaiman eta Helene Otaduy. “Adin eta profil ezberdineko lagunek osatzen dugu hamaikakoa, Eibarko ahalik eta publiko handienera heltzeko”, esan

digu Otaduyk. “Gazte profila betetzen dut nik, eta nire inguruan eragitea da asmoa”.

Emozioz eta pozik hartu du hamaikakoko kide izatea eta gazteen artean Euskaraldian eragiteko gogo dagoela aipatu digu. “Oraindik artikulatzen gabiltza, baina Gazte Asanblada sortu dugu, euskararen inguruko militantzian eta militantzian ez dabilzanek ere Euskaraldiari alea jartzeko”, aipatu digu gazteak.

## Entitateentzako eskaintza berezia prestatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak

...eta kitto! Euskara Elkarteak, Euskaraldian parte hartzeaz gain, hiriko entitate guztiak izena eman eta ariketa burutzeraz bultzatu nahi ditugu. Horregatik, Euskaraldian parte hartuko duten Eibarko entitateei (elkarte, enpresa, merkatari, taberna...), beraien partaidetza eza-

gutzera eman eta ...eta kitto! aste-karian iragarri daitezten, eskaintza berezia prestatu diegu.

Eskaintzaren nondik norakoak ezagutzeko, [publizitatea@etakitto.eus](mailto:publizitatea@etakitto.eus) helbidera idatzi edota 688 62 15 35 telefono zenbakira deitu dezakezue.



*Elkar mugituz  
egingo dugu*



## Aitor Muniozguren

Euskaraldia garrantzitsua dela uste dut, egunerokoan euskara nola erabiltzen dugun hausnartzeko aukera ematen digulako eta euskara erabiltzeko benetako pausoak ematera animatzen gaituelako. Askotan, ohituragatik edo erosotasunagatik ez dugu euskara erabiltzen. Euskaraldiak inertzia horiek hausten laguntzen digu, eta euskara gehiago hitz egitera animatzen gaitu, beldurrik gabe, akatsak egin ez gero ere. Niri asko gustatzen zait "Akatsak akats euskeraz egin" leloa.

Bizitza nire betiko auzoan, Ipuruan egiten dut. Ez naiz Untzagara askotan jaisten. Eibar F.T. partiduaurreko giroan gozatzeko, jaietan eta gutxi gehiago. Ipuruan dezente erabiltzen da euskara egunerokoan. Baina, oro har, Eibarren gaztelaniara jotzeko joera

handia dago. Helduen ardura gure seme-alabei eta gazteei euskararen erabilera transmititzea da. Zentzu horretan, nik uste dut badagoela marra gorri bat ezin duguna pasatu: umeen aurrean beti euskeraz hitz egin behar dugu. Niri Untzagan, garagardo bat hartzen ari direla, guraso euskaldunen kuadrillak seme-alaben aurrean gaztelaniaz hitz egiten ikustea deserosoa egiten zait. Ez da adibide ona. Hor egon liteke Euskaraldirako erronka bat: 11 egun horietan entrenatzea, urte osoan umeen aurrean beti euskeraz egiteko. Horretarako, adibidez, uste dut balio duela Euskaraldiak. Euskaraldian parte hartzeak gure hizkuntza-ohiturez jabetzen lagundu behar digu, eta aldaketa txikiak egitera bultzatu. Eta horiek, jende askok egiten badu, eragin handia izan dezakete. Eta garrantzitsua da, giro kolektibo bat sortzen delako ere: milaka pertsona aldi berean ari garela jakiteak indarra eta konfiantza ematen digu. Guztiok gure alea jarriz, euskara askoz gehiago entzun eta bizi daiteke Eibarren.

## Aresatz Usobiaga

Euskaraldia euskararen egoera soziolinguistikoaren inguruko gogoeta pizteko erabiltzen den ekintza da eta, ondorioz, Euskaraldiko egun hauetan kontzienteki euskararen erabilera aktiboaren ariketa egin behar dugu, egunerokotasunean, euskararen erabileraren kontzientzia piztuz. Edozein elkarrizketako lehen hitza euskeraz izatea gustatuko litzaidake eta, gutxienez, elkarrizketari eusteko gogoia eta intentzioari eustea. Euskaraldia izan dadila txapa soinean jarrita eramatea baino gehiago.

Euskaraldia gaztelera erabiltzeko inertziak eragindako ohi-turak gainditzeko hasiera berri bat da. Eguneroko bizitzan horri eustea eta kaleetan euskara entzutea da lortu behar-ko genukeena. Eibarren, ekintza honek dakarren erronkari eustea gustatuko litzaidake hurrengo Euskaraldia izan arte. Euskara Euskal Herriko altxorra da eta altxor hori gordez-ko dezagun hizkuntzaren erabilpena beharrezkoa da. Erabilpen hori areagotzeko eta gaztelarerekiko dugun inertzia apurtzeko Euskaraldia moduko ekintzak ditugu eta norberaren euskara-mailatik harago, guztiok parte hartu dezakegun ekintza da, maila desberdinetarako rol desberdinak baitaude.



## Helene Otaduy

Euskaraldia garrantzitsua iruditzen zait euskarari espazio zabala ematen dion ekimena delako.

Euskara urte osoan bultzatzearen aldekoa naiz, baina egia da Euskaraldiak euskara publiko askotara zabaltzeko aukera ematen duela; sistematizatzeko modu bat da.

Ariketa garrantzitsua iruditzen zait, euskara erdigunean jartzen delako eta badelako modu bat jendeari esateko "hemen gaude eta urte guztian euskararen alde lanean badihardugu ere, hamaika egun horietan topera ibili behar gara".

Jende guztia animatuko nuke parte hartzera. baina bereziki euskarekin harreman zaila edo konplikatua duten horiek animatuko nituzke, belarriprest moduan baldin bada ere, euskeran eta euskararen munduan sartzeko modu on bat delako. Nik lehenengo hitza euskeraz jasoko dudala esaten badut, jendeak euskeraz egingo dit berba.





maiatzaren 15etik 25era



“Elkar  
mugituz  
egingo dugu”



**EIBAR**  
Udala | Ayuntamiento

Eibarko Udala  
**euskararen alde**



## Asola Berriko Gari eta Ganix Rodriguez sarituta Bergaran

Garik hirugarren postuan amaitu zuen Gipzukoako Txapelketako hirugarren jaurtialdian eta Ganix bosgarren izan zen. Guztira 74 bolari izan ziren parte hartzen Bergaran eta etxeko Mikel Almorza nagusitu zen, sei txirlorerekin. Bergarakoari San Migueleko Xabier Loiolak jarraitu zion, bostekin, eta Elgoibarkoari Gari Rodriguez eibartarrak lau txirlorerekin. Laugarrenetik aurrera hiru txirlorerekin geratu ziren, tartean Asola Berriko Ganix Rodriguez. Txapelketako laugarren tiraldia bihar jokatu da, Lasturreko bolatokia.

Saillapen nagusian Xabier Loiola elgoibartarrak hartu du aurrea, 13 txirlorerekin, eta bi txirlora seikote bat dugu, Anartz Esteban eta Gari Rodriguez eibartarrak tarteko. Asola Berriko Bittor Ugarteburu dago jarraian, 10 txirlorerekin. Bikotekako saillapenean berdinketa dago gorenean, Asola Berriko Sergio Rodriguez eta Anartz Esteban eta San Migueleko Xabier Loiola eta Angel Ibarluzearen artean. Taldekakoan, San Miguel A taldeak lau txirilo ateratzen dizkio Asola Berri A-ri eta 12 Asola Berri B-ri. Enara Montiel eibartarra nagusi da emakumezkoetan.

## SD Eibarko lau jokalariren selekzioek deituta

Emakumezkoen lehen taldeak denboraldiko azken FIFA geldialdia izango du aste honetan; hori dela eta, jokalariren batzuk euren selekzioekin bidaiatzeko deia ere jaso dute. Alena Pecková, Margherita Monnecchi eta Kakounan Amani joango dira egunotan, Eunate Astralagarekin batera. Pecková Txekiar Errepublikako selekzio absolutuarekin dago, Nations Leagueko taldekako fasea jokatzeko. Bere herrialdeko selekzioa B Ligako H taldean dago, eta bi partidu jokatu ditu, joan-etorriko formatuan, gaur eta 8an Ukrainaren aurka. Monnecchi italiarrak bere herrialdeko 23 azpiko selekzioarekin lagunarteko txapelketa jokatu du. Danimarca, Eskozia, Belgika, Suezia, Espainia, Ingalaterra, Frantzia, Portugal eta Norvegia izango dira parte hartzen. Monnecchiaren taldeak Norvegiaren aurka hasiko du Murtzian jokatu den txapelketa. Amanik, bestalde,



Astralaga SD Eibarko atezaina.

Boli Kostara bidaiatuko du lagunarteko norgehiagokak jokatzeko bere selekzioarekin. Han bi partidu jokatu ditu Keniaren aurka, joan-etorriko formatuan, gaur eta hilaren 8an.

Astralaga atezainak, azkenik, Espainiako selekzio absolutuaren deia jaso zuen, Nations Leaguera-ko multzoen faserako Portugalen aurka jokatzeko, modu horretan SD Eibarko lehena izanik selekzio absolutuaren deialdi batean sartzen. Beragoko atezainak 19 urte azpiko selekzioarekin Eurokopa irabazi zuen iaz, eta UEFaren Hamaikako idealean sartu zuten.

## Ugaitz Gartzia duatloiko txapeldun

Aurreko zapatuan Oñatin jokatuako Euskadiko Duatloi Txapelketan, distantzia estandarrean jokatuakoan, JAZ Eibar Triatloi Taldeko kideek lan bikaina egin zuten. Hasteko, Pablo Zabala une oro egon zen lehen postuetan, meritu handiko 7. postuan amaitzeko lasterketa. Horrez gain, Roberto eta Ugaitz Gartzia aita-emeak podiumera igo zuten: Ugaitz semeak 35. postuan amaitu zuen, jubenil mailako txapela jantziz modu horretan; eta



Ugaitz jubenil onena izan zen Oñatin.

Roberto aita, 59. tokian helmugaratu ondoren, V2 beteranoen mailako hirugarrena izan zen.

## Astelehenean hasiko den Itzulia zapatuan amaituko da Eibarren

Gure herriko OCETA antolakuntza taldeak prestatzen duen Itzulia Basque Countryk 64. edizioa biziko du datorren astean, astelehenean Gasteizen hasi eta zapatuan Eibar-ko T. Etxebarria kalean amaitzeko. Apirilaren 7tik 12ra jokatuiko den probak sei etapa izango ditu, beraz, honela banatuta: astelehenean Gasteiz-Gasteiz, 16 kilometro eta erdiko erlojupekoa; martitzenean Iruñea-Lodosa, luzeena, 200 kilometrokoa; eguaztenean Zarautz-Beasain, 156 kilometrokoa; eguenean Beasain-Markina-Xemein, 170 kilometrokoa eta gure inguruetan lehiatuiko dutena; barixakuan Urduña-Gernika-Lumo, 172 kilometro osatzeko; eta azkena, zapatukoa, Eibarren hasi eta amaituko dena, 154 kilometroko ibilbide neketsua osatu ondoren. Txirrindulariek, guztira, 865 kilometro egingo dituzte aipatutako sei egunotan; gorabeheratsuak eta gogorrek izango dira horietako asko, 27 mendatetara igoko baitira.



Roglic eta Pogacar aurreko edizio batean. Eurak gabe, edizio irekiagoa izango da aurtengoa.

Hemendik gertuen jarraitzeko etapak eguenekoa eta zapatukoa izango dira, azken hori gainera aurretik aurrera jarraitzeko bezalakoak, Eibarren hasi eta amaituko delako. Eguenekoari dagokionez, txirrindulariek zazpi mendateri aurre egin beharko dioten horretan 1. Mailako Izuako gaina izango da tartean. Igoera Matsaria industria-genetik joango da egun horretan,

baserri artean ere bai, eta %20ko maldak dituen errepide oso estu batetik. Zapatuko azken etapari dagokionez, hor ere beste zapi mendate egongo dira, baina kasu horretan hiru izango dira 1. mailakoak. Aurten Krabelingo igoera ezin latzagoa etaparen hasieran egongo da. Aurreikusten denez, eta ohiturari jarraituz, hor erabakiko da Itzuliaren garailea.

## Eibar Igerixan bosgarren izan da Gipuzkoako Kluben Kopan

Aurreko asteburuan Tolosako Usabal kiroldegian jokatuiko Gipuzkoako Kluben Kopan gure herriko igeriketa kluba bosgarren tokian geratu zen sailkapen nagusian,

emakumezkoen taldea bosgarren postuan sailkatu eta gizonezkoena zortzigarren geratu ostean. Guztira hamasei igerilarik ordezkatu zuten Eibar igerixan lehiaketa horretan,



bederatzi neska eta zazpi mutilekin. Lorpen nagusienak Paula Calvok lortu zituen beste behin, parte hartu zuen lau probatan nagusitu baitzen: 200 metrotako estilo eta bizkar era-koetan, eta 400 metrotako estilo eta librean. Ander Izagirrek ere maila bikaina erakutsi zuen eta bigarren izan zen 100 librekoetan eta hirugarren 50 metrotako bitan, tximeleta eta libre erako probetan. Itsaso Castrillo eta Naroa Osa izan ziren podiumera igo zuten gure herriko beste bi ordezkariak: Castrillo hirugarren izan zen 200 libretan, eta Osak postu bera lortu zuen 50eko bizkarrekoan.

## Gizonezkoen Eibar Rugby Taldea mailari eusteko azken aukeren aurrean

Euskal Ligako 1. Mailan jokatzeko duen gizonezkoen lehen taldeak ez ditu aukera askorik maila horretan jarraitzeko hurrengo denboraldian, baina dituen urrieko eusteko asmoarekin zelairatuko da bihar Unben, 17:00etatik aurrera Menditarrak bisitariari irabazi eta behar dituen puntuak bereganatzeko. Eibartarrek ez badute irabazten, matematikoki mailari eusteko aukerak galduko lituzkete, zuzenean behintzat. Horretarako, dena dela, ez dute aurkari erraza izango, bosgarren



direlako sailkapenean, 18 partidutik 11 irabazita.

## Deporreko xakeko lehen taldeak lortu du Gipuzkoako Maila Gorenera igotzea

Aurreko asteburuan jokatu azken jardunaldiaren ondoren, Eibarko Klub Deportiboko xake modalitateko lehen taldeak probintziako Maila Gorenera igotzea lortu du, horrela amaiera bikaina ezarri denboraldiari. Azken fasera bere multzoko lider bezala sailkatuta, azken unera arte lehenengo posturako borrokan izan da Eibar A, azkenean Astigarraga A-rengandik puntu erdira geratzeko.

Azken jardunaldian eibartarrek

bina berdindu zuten etxean Salto Bidasoa B-rekin jokatu norki norgehiagokan. Diego Olmok bere partida irabazi zuen, Jon Aranek eta Xabier Beorlegik berdindu egin zituzten eurenak, eta Diogo Velek amore eman behar izan zuen berean. Sailkapen nagusian Astigarraga A-k 17,5 puntu lortu ditu eta Eibar A-k 17, talde biek mailaz igotzea lortuz; atzetik geratu dira Alfil B (15,5), Arrasate-Arlutz C (15) eta Salto Bidasoa B (14).

## Asteburu honetan amaituko da Malape Tabernak irabazi duen futbol-zaletuen Liga

Aurrez atzeratutako 14. jardunaldiarekin amaituko da asteburuan futbol-zaletuen liga txapelketa. Malape Tabernak irabazi du aurtengo edizioa, dagoeneko bederatzi puntuko alde kentzen dielako atzetik dituen Garajes Garcia eta Xania Ta-

berna taldeei. Aterago geratu dira Bar Marem, Adahi Etxegi, Kalaka Buenos Aires, Limpieza Rueda, BOJ eta jardunaldi honetan atsedeen hartuko duen Baserri, hau azken postuan. Liga amaituta, Kopa torneoari ekingo diote guztiek.

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Gizonezkoen 2. Maila

SD EIBAR - Oviedo (bihar, 16:15)

#### Gizonezkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Teruel (etzi, 13:00)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

SD EIBAR C - Touring (etzi, 15:45)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Erandioko Betiko - SD EIBAR C (etzi, 18:00)

#### Erregionaleko Gorengo Maila

Zarautz - URKI (bihar, 13:15)

EIBARTARRAK - Aretxabaleta (bihar, 18:00)

#### Erregionaleko 1. Maila (Kopa)

Aretxabaleta C - URKI B (etzi, 18:45)

#### Ohorezko Jubenil Maila

SD EIBAR - Osasuna (bihar, 12:30)

#### Jubenilen Nazional Liga

Antiguoko B - SD EIBAR B (bihar, 15:30)

#### Jubenilen Euskal Liga

URKI - Laudio (bihar, 15:30)

#### Kadeteen Euskal Liga

Santutxu - SD EIBAR (bihar, 18:00)

### FUTBOL-ZALETUA

• BOJ - Limpieza Rueda (bihar, 09:00)

• Adahi Etxegi - Xania (bihar, 10:30)

• Malape - Kalaka B. Aires (etzi, 09:00)

• Garajes Garcia - Bar Marem (etzi, 10:30)

### ARETO-FUTBOLA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila (Kopa)

EIBARTARRAK - Mandragora (bihar, 17:45)

### ESKUBALOIA

#### Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Loyola (bihar, 19:00)

#### Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Tarazona (bihar, 16:45)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Ereintza Bitek (etzi, 12:00)

#### Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Egia Kosko (bihar, 15:45)

### FRRUGBIA

#### Gizonezkoen Euskadiko Liga

EIBAR RUGBY - Menditarrak (bihar, 17:00)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

ARRASATE EIBAR - Enva. Rioja (bihar, 13:00)

### SASKIBALOIA

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Goierri - ARTESAN. JUANTXO (bihar, 14:30)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Drunkat Hoops - EIBAR (bihar, 16:00)

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Aloña Mendi - EIBAR B (bihar, 16:00)

### WATERPOLOA

#### Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

URBAT - Metropole L. Palmas (bihar, 20:15)

#### Euskal Herriko 1. Maila

URBAT B - Sestao (bihar, 14:30)

# Euskarazko bi lan eta La Novena, Antzerki Jardunaldiak agurtzeko

Apirilaren 11n, datorren asteko barixakuan, esango digu agur Antzerki Jardunaldietako 48. edizioak. Beraz, zure eskuetan duzun ale honen ondoren lau lan besterik ez zaizkio geratuko guztira 25 lan eskaini dizkigun aurtengo egitarauari. Bihar La Garnacha Teatroak eskainiko duen “Mujeres, teatro a la carta” lanaren ondoren, domekako “Renata” eta martitzeneko “Zorretan” izango ditugu ikusgai, etxeko antzezleen eskutik teloia jaitsiko duen “Los Reyes Católicos, Colón y otras historias” lanaren aurretik.

**M**artxoaren 16rako zegoen iragarrita, baina txarto-ulertze bat tarteko aurtengo egitarauan atzeratu behar izan duten lan bakarra izan da. Hiru aste geroago 75 minutuko iraupena duen komedia-rekin gozatzeko aukera izango dugu domeka honetan; orduan bezala, Uni-Eibar Hezkuntza Esparruan hartuko du ostatu.

“Renata hil eta berpiztu egiten da etengabe. Inoiz pentsatu gabeko modurik absurdoenetan hiltzen da. Bizitza eta heriotzaren artean joan etorrian ibiliko da. Dohaina ala mardarikazioa?”. Hor lanaren abiapuntua: heriotza eta bizitza; errealitatea eta mundu birtuala; kolektiboa eta bakardadea. Eszenatokian lau aktore eta pertsonaia asko ikusiko ditugu. Erritmo frenetiko eta komiko baten laguntzaz pertsonaia guzti horiek Renata lagundu eta zirikatuko dute. Musiak ere garrantzi handia du traman, joku eszeniko biziari erritmoa eta freskotasuna emanaz.

Kamikaz Kolektiboa 2014. urtean Miren Gaztañagak, Erika Olaizo-



Kamikaz Kolektibokoek antzetzuko dute “Renata” domeka honetan Uni-Eibarren.

lak eta Amancay Gaztañagak sortu zuten antzerki konpainia da. Eszena zein generoarean hausnarketatik abiatuta, zortzi antzezlan eta hainbat ikus-entzunezko pieza sortu dituzte modu kolektiboan. Azken



urteetan hainbat proiektu elkarrekin egin ostean, Iraia Elias eta Xanti Agirrezabala aktore sortzaileak batu ziren konpainiara. 2021ean bi sari nabarmen jaso zituen taldeak “Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi” antzezlanarekin: alde batetik, Donostia Antzerki Saria; eta bestetik, Azpeitiko Antzerki Topaketetan ikusleen saria.

### Hikaren “Zorretan”

Amatasuna, zaintza eta maitasunari buruzko tragikomedia absurdoa. Maitasunaz eta zainketaz modu lotsagabe bezain arinean hitz egiten duen kontakizun intimoa de “Zorretan”, ederra eta ausarta. Agurtzane Intxaurreagak idatzi eta zuzendu du, eta Hika Teatroa konpainiak taulara eraman. Antzezlanak amatasunaz eta zaintzaz hitz egiten du, egoera komikoak eta surrealistikak tartekatuta. Donostia antzerki saria irabazi berri du eta, horrez gain, Max sarietan sei hautagaitza jaso ditu antzezlanak; gainera, testua Susa argitaletxeak argitaratuko du.

Kontakizunean zehar egoera komikoak, absurduak edo surrealistikak gertatuko dira, pertsonaiaren iraganaren, orainaren edo etorkizunaren arteko narrazio hautsi batean.



“Zorretan” lanak Donostia antzerki saria ere irabazi du dagoeneko.

Emakumeak bere mamuen aurka borrokatu beharko du, amarekiko harremana zer izan zen gogoratu, eta haurtzaroko beldurrak eta iraganeko minak agerian utziz. Bien bitartean, amaren presentziak ukitu absurdua eta magikoa gehituko dio esan bezala amatasunaz, zaintzaz eta maitasunaz hitz egiten duen tragikomedia honi.

### La Novena, etxean lanean

Badira 12 bat urte “La Novena” antzerki taldea sortu zutela, Ikasten elkartearen eskutik. Esperientzia Eskolako ikasle ohiak Ikasten-en sartu ondorengoko emaitza da taldea, Debabarrenako bederatziga-

## Bi tragikomedia eta drama eta komedia bana iragarrita daude Antzerki Jardunaldietako azken asterako

rren promozioarekin abiatutakoa. Ikasle horien artean zegoen Ernesto Barrutiak interpretazio munduan egindako ibilbideak animatu zuen bera horrelako talde bat osatzera.

Oraingo hau ez da euren lehen lana (aurretik egin dituzte beste batzuk, tartean “Sonrisas y risas” azkenetarikoa) eta, esperientzia horretaz baliatuz, “pertsonaiekin jolas egin” nahi izan duten honetan, “bestelako istorio bat garatzen” dute, umorea erabiliz. Beste istorio horietan, askatasun bila dabilzan emakume batzuk gertakarien gurrupil zoro batean murgilduko dira, “Errege Katoliko, Kolon eta XV. mendeko beste pertsonaien bueltako bizitzetan oinarrituz”.



Badira hamar urtetik gora “La Novena”-koak oholtzara igotzen hasi zirela.

# XLVIII. ANTZERKI JARDUNALDIAK



**apirilak 5 (zapatua)**



## “Mujeres, teatro a la carta”

La Garmacha Teatro (Errioxa)

DRAMA / 90'

**Antzeleak:** MARIA JOSE PASCUAL, REBECA DE APELLANIZ, MEGAN DUVAL, VICENTE CUADRADO

**Zuzendaria:** VICENTE CUADRADO

Menu dramatiko gisa pentsatuta, ikuskiunak 12 bakarrizketa ditu, eta protagonistak hiru aktore izango dira, historiako emakume garrantzitsuen papera egingo dutenak. Postre gisa, pieza labur bat antzetzuko dute, Henrike VIII.aren hiru emazte gorputzeko. Ikuskiun liluragarri bezain konplexua.

**Coliseo (19:00)**

**apirilak 6 (domeka)**



## “Renata”

Kamikaz Kolektiboa (Gipuzkoa)

KOMEDIA / 75'

**Antzele eta zuzendaria:**

ERIKA OLAIZOLA, IRAIA ELIAS,

AMANCAY GAZTAÑAGA, XANTI AGIRREZABALA

Konpainia gazte honen obra berri bat, umorea eta absurdua beste leku batzuetara iristeko bide bezala erabiliz. Renata hil eta berpiztu egin da; etengabe hil eta berpizten da, azken astean 115 aldiz. Ezezaguna komunitate zientifikoarentzat; Jainkoa beste askorentzat. Zast, eta bizitzara itzuliko da.

**Uni-Eibar (19:00)**

**apirilak 8 (martitzena)**



## “Zorretan”

Hika (Gipuzkoa)

TRAGIKOMEDIA / 70'

**Antzeleak:** MIREN GAZTAÑAGA, JABI BARANDIARAN, IÑAKE IRASTORZA

**Zuzendaria:** AGURTZANE INTXAURRAGA

Kontakizunean zehar egoera komikoak, absurduak edo surrealistak gertatuko dira, pertsonaien iraganaren, orainaren edo etorkizunaren arteko narrazio hautsi batean. Bien bitartean, amaren presentziak ukitu absurdua eta magikoa gehituko dio amatasunaz, zaintzaz eta maitasunaz hitz eginez.

**Coliseo (19:00)**

**apirilak 11 (barixakua)**



## “Los Reyes Católicos...”

La Novena (Eibar)

TRAGIKOMEDIA / 90'

**Antzeleak:** PATXI MUTILOA, MARIBEL GASCAN, ISIDRO CARAMAZANA, ISA GONZALEZ, ELI IRIONDO

**Zuzendaria:** ERNESTO BARRUTIA

Pertsonaiekin jolas egiteaz aparte, bestelako istorio bat garatzen dute umorea erabiliz. Istorio horietan askatasunaren bila dabiltzan emakume batzuk gertakarien gupil zoro batean murgilduko dira. Kantu batzuk ere sartu dituzte, zuzeneko musika-rekin, ikuslearengana iristeko modu atseginean.

**Coliseo (19:00)**



## Berbalagunek egunpasa ederra egin zuten Elorrion

Udaberriarekin batera iritsi dira txangoak Berbetan programara ere. Joan den zapatuan mintzapraktika programako hainbat berbalagun Elorrion izan ziren. Goizean goiz autobusa hartuta abiatu ziren hogeit bat lagun Eibartik horren gertu dugun herria bertatik bertara ezagutzeko. Zain zuten Olatz, bisita gidatua eskaintzeko prest, eta eguraldi eskasari aurre eginez, Elorrion goitik behera ikusteko aukera izan zuten gidariaren azalpenak adi entzuz: herriaren historia, eraikin nagusiak, anekdotak eta bitxikeriak... Galderak egiteko tarterik ere ez zen falta, eta berbalagunek, horrela, euskara entzuteko eta euskaraz berba egiteko aukera izan zuten. Behin bisita amaituta, euren kabuz ikusi zuten herria eta, ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten Elorrioko jatetxe batean.

Berbalagunak astean behin elkartzen dira, nor bere taldean, ordubetez euskaraz berba egiteko. Talde horiek euskara praktikatzeko aukera eskaintzen die euren egunerokoan horretarako aukerarik ez dutenei. Horrez gain, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen ekimenak bestelako ekintzak ere antolatzen dizkie berbalagunei, eta horien artean daude ikasturtean egiten dituzten txangoak, udazkenean bata eta udaberrian bestea.

Bestalde, bihar, Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familien txanda izango da. Abadiñoako Alluitz Naturara joango dira hirurogei lagunetik gora. Besteak beste, gazta eta gatzatua egingo dituzte, animaliak gertutik ikusiko dituzte eta taloa ere egin eta jango dute.

 <b>FUNEUSKADI</b> Grupo Asistia	 <b>FUNERARIA MUGICA</b> Funeuskadi
 <b>TANATORIO EIBAR</b>	 <b>TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR</b>
<b>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</b> <b>www.funeuskadi.com</b>	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	



## Fernando Valenciano Yebra

**5. URTEURRENA**  
2020/04/08

**“Zu joan zinen, baina  
GURE BIHOTZETAN  
BIZIRIK ZAUDE”**

- ETXEKOAK -





## Usartza Txistulari Taldekoek kontzertua emango dute domeka eguerdian Untzagan

Kontzertua emango du domekan Usartza Txistulari Taldeak, 12:45etik aurrera Untzagan, udaletxeko arkupeetan. Egunerako izaera eta estilo anitzeko egitaraua prestatu dute: *Atiarno* (fandangoa eta arin arina, P. Onraitia), *Soka dantza* (J.I. Ansorena), *Doinua eta bariazioak* (W. A. Mozart), *Amaya* operaren ezpata dantza (J. Guridi), eta *Agustin, Xantin ta Juan Joxe* (Rapsodia, I. Ansorena). Kontzertuan, txistuaren doinuak entzuteaz gain, txistulari taldearen 90. urteurrenaren harira izango diren hurrengo emanaldiak emango dituzte ezagutzera. Usartzakoen esanetan, “duela 15 urte, 2010ean, kontzertu eta emanaldi bereziekin ospatu genuen 75. urteurrena. Harrezkero beste 15 urte bete ditugu eta, Musika Eskolaren eta Udalaren laguntza izan arren, ez da erraza txistulari berriak erakartzea, urteek aurrera egin ahala, gure hirian errotuta dagoen tradizioa ez galtzeko. Aurten ere merezi duen ilusioarekin ospatu behar dugu 90. urteurren hau”.

### Lehen taldea 1935ean eratu zen

Txistuak gure herrian izan duen ibilbideari erreparao egin diote: “1566. urtean Anton de Ybarra lehen danbolinaren erreferentzia dugu; orduan instrumentista bakar batek txistua eta danbolina jotzen zituen. Geroa, 1935ean, Eibarko lehen txistulari banda sortu zen, gaur egun ezagutzen dugun bezala”. Une honetan, baja batzuk tartean, eta taldeko zuzendaria zen Elena Perezen heriotza goiztiarraren ondoren, Usartza Txistulari Taldea honako hauek osatzen dute: Enrique Montero (zuzendaria eta 1. txistua), Iratxe Gimenez eta Leire Arrizabalaga (2. txistua), Xabier Zorrakin eta Asier Castelos (silbotea), German Ereña (danborra) eta Iñaki Orbegozo (danborra, xilomarimba eta tronpa).



## EKOS abesbatza berria aurkezteko kontzertu sakroa

Bihar egingo dute EKOS abesbatzaren aurkezpena Karmengo elizan, 20:15ean hasiko den kontzertuan. Eibarko Musika Eskolako helduen abesbatza da EKOS, eta eurekin batera Debabarreneko Orfeoia egongo da, Jose Miguel Laskurain Orfeoiko zuzendariak gidatuta: “Aste Santuaren aurretik musika sakratuko kontzertu bat egin nahi izan dugu, baina hainbat berezitasunekin; pieza gehienak gaur egungo musika sakrokoak dira, eta ziur nago mundu guztiari gustatzen zaizkiola”. Hiru zatitan banatuko da. Lehenik eta behin DBOR arituko da, EKOS abesbatza berriari ongietorria emanez. Ondoren EKOS abesbatzak abestuko du, eta azkenik biak elkarrekin arituko dira. “Une zoragarria” izango dela dio Laskurainek.



## Iker Aranberriren ‘Baden Verboten’ liburua salgai

Dagoeneko salgai dago Iker Aranberri eibartarraren ‘Baden Verboten’ (‘Debekatuta dago bainatzea’, alemanez) poema-liburua liburu-dendetan eta Pamielaren webgunean. Xabier Lete VII. Nazioarteko Poesia Saria irabazi du Aranberri bere liburuarekin. Sari ekonomikoaz gain, bere lana argitaratuta ikusi du orain. Sari banaketa ekainaren 3an izango da.



## Aratosteetako argazki erakusketa Topalekun ikusgai

XXVII. Eguen Zuri argazki lehiaketako lan irabazleak, lehiaketara aurkeztutako beste batzuekin batera ikus daitezke atzoz geroztik Topalekun. Atzo banatu zituzten sariak, erakusketaren inaugurazioan bertan. Aurtengo lehen saria Pedro Arriola Arrizabalagaren “Oiloak” lanak eraman du, bigarrena Itsaso Lakunza Quintasen “Inauteriak Eibarren” izenekoak, eta hirugarrena Carlos Romero Bilbaoren “Maskarada” izenburuko lanak jaso du. Erakusketa apirilaren 21era arte bisitatu daiteke.

### Liburu aurkezpena eta Euskal Jairako larrain dantza

Horrez gain, Arrate Kultur Elkartek beste jarduerak batzuk antolatu ditu datozen egunotarako. Bihar bertan Maialen Bilbaoren “El juego del arlequin y otros cuentos para no dormir” liburuaren aurkezpena egingo dute, 11:00etan elkarteko lokaletan, egilearen partehartzearekin. Astelehenean, berriz, 19:00etan hasiko da euskal kanta tradizionalak ikasi nahi dituztenentzat kantu saio irekia. Eta, azkenik, Euskal Jairako prestatzen hasteko, larrain dantza erreparatzeko saioak izango dituzte, eguaztenean, 19:00etatik 21:00etara Arrateko Andra Mari ikastetxean. Maiatza bitarteko saioak eguaztentean izango dira, ordu eta toki berean, honako egunetan: apirilaren 16an eta 30ean, eta maiatzaren 7an, 14an eta 21ean.



Asteazkenetan  
apirilak 9,16,30  
maiatzak 7,14,21  
19:00-21:00.  
Arrateko Andra Mari  
ikastetxean.  
5 euro, AKEko  
bazkideek dohain.

arreatekultur@gmail.com  
nbf 630384912



## Sanjuanetarako kontzertu nagusiak iragarri dituzte

Aste honetan eman dituzte ezagutzera Eibarko Udalak San Juan jaietara begira antolatu dituen kontzertuak. Azken urteotako martxan, Sanjuanen aurreko asteburuan egingo dira jaietako kontzertu nagusiak, hau da, ekainaren 20an (barixakua), 21ean (zapatua) eta 22an (domeka). Barixakuan Süne arituko da, “oraindik esan ez daitekeen Eibarko beste talde batekin”. Kontzertu hau lotuta zutela batek baino gehiagok proposatu die Süne ekartzea, “baina guk ezin genuen ezer esan”. Huntza taldean aritzeagatik ezagun egin zen Josune Arakistain Salas (Lastur, 1996) trikitilariaren bakar-kako proiektua da Süne eta gazteen artean jarraitzaile asko dauzka. Zapatuan, berriz, berrogei urtetik gorako ibilbidea duen Seguridad Social taldeak emango du kontzertua. Eta domekan “souleko erregina berria” den Shirley Davies arituko da.



## Udako Ikastaroen zerrenda prest dauka UEUK

Udako Ikastaroen 53. edizioa antolatu du Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Aurtengo edizioan ere jardunaldiak izango dira protagonista. Egoitza nagusiak Eibar, Baiona eta Iruñea izango dira, baina Bilbo, Tolosa, Usurbil, Gasteiz eta Errenteriarra ere iritsiko dira Udako Ikastaroak. Izena emateko epea maiatzaren 5ean zabalduko da. Ikastaroen zerrenda osoa UEUren webgunean kontsultatu daiteke.



**AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK**



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

		4					9
7						2	
				6	2	5	8
		3	8				6
4							2
	8				5	3	
8	1	9	4				
		7					6
2						1	

4	9	1	8	7	1	6	2	5	9
9	8	6	1	6	2	7	7	3	6
6	2	7	9	4	8	1	5	8	7
7	8	6	5	1	7	2	8	9	4
2	1	8	6	9	5	7	4	1	6
8	7	9	2	7	1	6	3	5	8
1	6	5	4	2	7	8	9	3	1
6	7	9	8	1	5	4	2	3	7
5	4	2	7	1	6	3	8	9	5
9	8	6	1	7	2	5	4	3	8

soluzioa

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

			4	2	3		
	3	7		8			2
			3			9	1
	4						
3	8				5	9	
						6	
4	7			3			
8		2			1	5	
	2	9	4				

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

soluzioa

4	8	7	1	6	2	5	9
7	9	1	2	9	2	6	8
9	2	6	8	5	1	7	4
6	9	7	6	2	8	9	1
8	4	5	1	7	9	8	3
9	1	2	9	6	1	4	5
1	6	7	9	5	4	7	2
2	7	9	8	6	1	4	5
7	8	2	4	7	6	9	1

# Apirilak 4-10

## BARIXAKUA 4

### GAZTE SAFA

**17:00/22:00** Gazte Safa elkartearen postua. Untzaga.

### MUSIKA

**19:00** Jon Alonso, "Atea irekiz" aurkezten. 5 euro. Coliseo.



### EIBAR MODAN

**20:00** Eibarko dendetako udaberri-udako moda aurkezteko desfilea, Eibarko Dendarien Elkarteak antolatuta. Doan. Errebal Plaza.

## ZAPATUA 5

### LIBURU AURKEZPENEA

**11:00** "El juego del arlequín y otros cuentos para no dormir" liburuaren aurkezpena, Maialen Bilbao egilearekin. Arrate Kultur Elkarte.

### MANIFESTAZIOA

**12:00** Pentsio publiko eta duinen alde. Eibarko Pentsionista Taldeak deituta. Untzaga.



## ASPACE-REN JAIA

**16:30/20:00** ASPACE elkarteak lagun eta senideen topaketa, Untzagan. Kalejira, trikitilariarekin eta Algaraklowneko pailazoekin, Errebal Plazaraino.

**18:00** Algaraklownekin jokoak, Simon Ezquiagaren emanaldia, Alain Zulaika (Ilusionista eta Copywriter), Diskofesta, DJ Fredy eta DJ Hugoren eskutik, merienda... Errebal Plaza.

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** "Mujeres, teatro a la carta" (La Garnacha Teatro, Errioxa). 5 euro. Coliseo.

### MUSIKA

**20:15** Eliz-musika kontzertua, EKOS Udal Musika Eskolako helduen koru berriaren eta DBOR Debabarreneko Orfeoaren eskutik. Zuzendaria: Jose Miguel Laskurain. Karmengo Amaren eliza.

## DOMEKA 6

### MUSIKA

**12:00** Eibarko Koro Parrokialaren kontzertua. Doan. Karmengo Amaren eliza.

### MUSIKA

**12:45** Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzaga.

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** "Renata" (Kamikaz Kolektiboa, Gipuzkoa). 12,5 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Uni-Eibar antzokia.

## ASTELEHENA 7

### KANTU SAIO IREKIA

**19:00** Euskal kantak ikasteko. Arrate Kultur Elkarte.

## MARTITZENA 8

### SOLASALDIA

**10:30** Berriketari ikasi: "Es necesario subir los gastos en defensa? Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Portalea.

### ANTZERKI

#### JARDUNALDIAK

**19:00** "Zorretan" (Hika, Gipuzkoa). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

## EGUAZTENA 9

### LITERATURA

**19:00** Idazlearekin Harixa Emoten: Karmele Jaio, "Maitasun kapitala" liburuari buruz. Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal Gallastegi. Portalea (1. batzartokia).

### EUSKAL JAIA

**19:00/21:00** Euskal Jairako Larrain-dantza errepaosoaren hasiera. Arrateko Andra Mari ikastetxea.

## EGUENA 10

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

## ERAKUSKETAK

### Apirilaren 9ra arte:

- **JESUS M. MONTEJO**ren margolanak (olioak). (Topaleku).

### Apirilaren 21era arte:

- **XXVII. EGUEN ZURI** argazki lehiaketako lanak erakusketa. (Topaleku).

### Apirilaren 27ra arte:

- **EIBARKO ARTISTEN ELKARTE**aren erakusketa kolektiboa. (Portalea).  
- **"IRUDIMENA ASKATU"** Eibar BHI-ko ikasleen artelanak. (Portalea).

### Apirilaren 29ra arte:

- **"BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK"** erakusketa. (Andretxea).

### Apirilaren 30era arte:

- **"BURDINA HISTORIAN ZEHAR"**, 1. argazki-lehiaketaren erakusketa. (Armagintzaren Museoa).

## Eskualdeko Agenda

### ERMUA

#### - EUSKAL JAIA

**5ean (ZAPATUA)**

**12:30** Dantza/kantu poteoa

**19:00** Dantza erakustaldia

**20:00** Erromeria Itzal taldearekin

**6an (DOMEKA)**

**10:30** Hamaiketako eta taldeen harrera

**11:00** Kalejira

**16:30** Dantza gidatua

**17:30** Plaza Dantza Ttipika taldearekin

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **5ean:** 22:30 (2 Aretoa)
- **6an:** 20:00
- **7an:** 19:30

**“Grand Tour”**  
DRAMA



2024/Portugal/129'  
Zuzendaria: Miguel Gomes  
Aktoreak: Crista Alfalate, Gonçalo Waddington, Jani Zhao  
**1910-20. urteak / Birmania**

## 1 ARETOA

- **5ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **6an:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **7an:** 19:30 (2 Aretoa)

**“Aún estoy aquí”**  
KOMEDIA DRAMATIKOA



2025/Espainia/110'  
Zuzendaria: Javier Ruiz Caldera  
Aktoreak: Miki Esparbé, Jordi Catalan, Angels Gonyalons  
**Autismoa / Musika / Aitatasuna**

## 2 ARETOA

- **5ean:** 19:45, 22:30 (Antzokia)
- **6an:** 17:00, 20:00
- **7an:** 19:30 (Antzokia)

**“Tierra de nadie”**  
DRAMA



2025/Espainia/101'  
Zuzendaria: Albert Pintó  
Aktoreak: Luis Zahera, Karra Elejalde, Jesus Carroza  
**Thriller / Drogak / Errealitatea**

## ANTZOKIA

- **5ean:** 17:00 (2 Aretoa)
- **6an:** 17:00

**“¡Hola, Frida!”**  
ANIMAZIOA



2024/Kanada/82'  
Zuzendaria: Karine Vézina  
**Komedia / Haurtzaroa / Biografikoa**

**DEPOR TABERNA**  
T. Etxebarria, 16 943 94 49 12  
deportaberna@deporibar.com

- **EGUNEKO MENUA**  
astehenetik ostiralera  
13:00etatik 15:00etara
- **ASTEBURUETAN**  
raziok, otartekoak,  
plater konbinatuak...
- **GOSARRIAK** egunero
- **TALDEENTZAKO**  
menuak egiten dira

**LORADENDA**  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*Enkarquak etxera*

**ek!**

Zure publizitatea  
herriko aldizkarian

**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **LUKEN**, bixar 3 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, **JULEN**, astelehenian 7 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat, txapeldun, famelix guztiaren eta, batez be, Anderren partez.



Zorionak, **AROA**, atzo 12 bete zenduazten eta. Marko, ama, aitta eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IRATI!** Domekan 5 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **MAIALEN**, hillaren 2xan 30 urte bete zenduazelako. Musua etxekuen eta, batez be, Mateo eta Vegaren partez.



Zorionak, **ELENE!** Domekan 2 urtetxo beteko dozuz eta. Patxo mordua famelixaren eta, batez be, Jon zure nebaren partez.



Zorionak, **VEGA!** 5 urte bete dozuz eta, printzesa! Musu haundi bat etxeko guztioren partez!



Zorionak, **MADDI**, domekan gure etxeko txikixak urtetxua egingo dau eta. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, **LIZAR!** Ederto ospatu genduan eguaztenian zure 7. urtebetetzia! Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **ION!** Eguaztenian 5 urte bete zenduazten eta! Musu eta patxuak famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **KENAN** (4 urte), **TELMO** (2 urte) eta Koldo!!!! Famelixako guztioren partetik!!!



Zorionak, **NAHIA!** 6 urte!!! Ondo pasa eguna. Etxekuen partez.

# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Logelak alokatzen ditut Eibarren. 651479142.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ospitalean ere. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632015835.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Erreferentziak. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 642044618.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 631375117.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 641910253.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta sukaldari bezala. 631730814.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko (sozio-sanitario titularekin), baita ospitalean ere, eta etxeko lanak egiteko. 660511781 eta 943742330. Elena.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 642852854.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 611909082.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 613073936.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: zainketa, garbiketarako... 613215006.

### 4.2. Langile bila

- Zerbitzaria behar da Buenos Aires eta Kalaka tabernetarako. Bidali CV: buenoseibar@gmail.com
- Langilea behar da Armagintzaren Museoa ordezkapenak eta bisita gidatuak egiteko. Bidali CV: ondartzet@gmail.com
- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean. Astean bat edo bi egunerako. Bidali CV: niklinika@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Euskarazko irakaslea behar da B2 titulua ateratzeko klase partikularrak jasotzeko. 677689227.

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- "Obras completas de Jose Miguel de Barandiaran" lana salgai. 15 tomo dira. 688691739.
- Organo elektronikoa salgai. Antonelli markakoa. Doinuen akonpainamenduarekin: vals, tango... Prezioa adosteko. 943752480.



# osasun gida

## Medikuntza Estetikoak



**abontza**  
clínica estética

**Medikuntza**      **Kirurgia**

- Dermatologia estetikoak
- Aurpegia gaztetzia
- Barizeak
- Betszelak, belarriak...
- Liposakzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behea      943 206 044

**ANE VESGA**  
CLÍNICA MEDICINA  
ESTÉTICA

*Mediku Estetikoak  
Kirurgia Orokorra  
eta Digestio-Aparatukoak*

Arragueta 2bis B, Entrepanta A  
623 003 251    info@draanevesga.com  
WWW.DRAANEVESGA.COM



## Okulistak



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta  
presbiziaren  
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak




**BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050**

**ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746**

**PODOLOGOIA**  
**Erdiko klinika**

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOIA**

**Maidier  
Lopez  
Etxeberria**

**Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tñoa. 943 82 04 88**

65 Kolegiatu zbkia.

## Psikologoak

**GONZALEZ DE MENDIBIL**

**PSIKOLOGIA  
PSIKOTERAPIA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENAKO  
ARRETA PSIKOLOGIKOA

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com  
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Ψ** Oscar Mondragon Lili  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

**Urkizu, 13 - behea**  
Tel. 943206823 / 686859023



**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA**

**943 20 22 66**  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com



**943-206776**

<https://eibarbhi.hezkuntza.net/eu/>



Jardineta, 3B

943 89 92 62

# BATXILERGOA AURREMATRIKULA

Martxoaren 31tik  
Apirilaren 11ra